

Zaindu irudiak

**Maiden IANTZI
GOIENETXE**

Atzo ez zitzaioa interesatzen erran zidan eta gaia aldatu genuen. Gaur, bera hasi zait, emozio handiz, Ana Obregon Miamiko hotel batean dagoela, itsasoa-ri begira, eguzkitako betaurrekoekin «nahiko guapa bere adinerako», haurra ospitaleko eskumuturrekoarekin agertu dela, ez dakit zenbat dolar kostatu zaiola eta jendeari kalean galdetu diotela eta badirela kontrakoak baina aldekoak ere bai. «Eta zer diote?». «Ama izateko ez dagoela adinik».

Atzo jakin-minik pizten ez ziona solaserako bide du gaur, etxean, lantokian, dendan zein kalean. Telebistan agertu denez, denak horretaz ari dira, baita politikariak ere. Badakigu aspal-

ditik kazetariak erabakitzen dutela politika, zeri buruz mintzatu eta gaiak noiz atera. Politikariak hanka noiz sartuko zain egoten dira iruzurren berri emateko. Aski gustura jarraituko nituzke mahai-inguruak politika politikarient artean egingen balitz; ideiak kontrastatuz, argudiatuz, garbi azalduz, entzuleok gehien zeinek konbentzitzen gaituen erabaki dezagun. Baina badira urte batzuk errespetu falta, oihera itxurakeriekin nekatu nintzela.

Koadernoan Yolanda Dominguezen “Maldito estereotipo” liburuko pasarte batzuk idatziak ditudala oroitu eta gogoeta hau aberastuko dutelakoan berreskuratu ditut. Hala dio argazkilari eta irudien artistak: kontsumitzen di-

tugun irudiek gure garuna eta mundu ikuskera elikatzen dute. Entreenimendua kontsumitzen dugun bitartean garuneko parterik baxuenak erabiltzen ditugu, bizirik irauten laguntzen diguten instintuez arduratzen den sistema linbikoa adibidez. Momentu horietan ez dugu errealitatea fikziotik bereizten. Berotasuna eta babesa bilatzen ditugu, eta plazeraren hormonak sortzen dira. Hortik adikzioa. Egoera horretan errazago manipulatzeko ahal gaituzte eta orduan sartzen digute publizitatea.

Janaria txikituta jatea bezalakoa da edukiak sinplifikatzea. Denak zapora bera du. Zergatik ez irudi dieta zabalgogo bat bilatu hobeki elikatzeko eta aukeratu ahal izateko? •

Sexkuntza

**Xabier Mikel
ERREKONDO**

Irribarretxo bihurria nabari zait gogoratzen dudana bakoitzean irakasle eta apaiz Joxe Mari Aranalde handiak, 14 urte inguru genituela, klasean nola azaldu zigun sexuan harreman naturalak gizon eta emakume arteko behar zuela izan, hatz lodia eta erakuslea elkartuz sortutako biribilean beste eskuko hatz bizkor luzatua sartzen eta ateratzen zuen bitartean, ebidentzia zientifikok ukazina balitz bezala.

Aranalderengandik bi belaunaldira Hezkuntza sailburu Jokin Bildarratzek “ikaslea erdigunean jarri nahi du”, eta bat nator. Benetako erronka,

baina, erdian jartzeaz gain, edukiz betetzea da; horien artean sexualitatea, hegi guztietatik eta askatasun osoz. Ez dut ikusten Bildarratz jaun moderrak irakasten sentitzea dela gakoa; sentitzeak emozioak dakartzala eta, bizitzeak merezi badu, emozioetatik duela merezi, eta emozioek naturalki eragiten dituztela sexualitatea, erotismoa, jolasak, plazerak eta sexua bera, norberak erabaki moldeetan.

“Kantatzen duen herri bat ez da inoiz hilko” abesten genuen Negu Gorriak taldearekin. Bada, pertsona erdigunean, nago hil artean bizitza bizi ahal izateko gako nagusia emozioak

sentitzea dela, irudimenez eta askatasunez eta nahi beste eta nolana plazerak eta sexua gozatuz.

Sexualitateak Hezkuntzan sufritzen duen tarrata nolabait konpentsatzeko, “Berria”k eman dizkigu orratza eta haria sex-shopen inguruko artikularekin; apartekoak, salmenta huts eta hitsetik harago aholkularitza profesionalari lotu zaizkionak. Merezi du gure zorionak horrenbeste.

Hartu iniziatiba, baztertu fosildutako lotsak eta jo denda erotikotara: Bitxigorria, La Gata con Botas eta abar. Dena dugu irabazteko, are eta gehiago bikotekidearekin joanda. •